

VII. EDIZIOA



“Café Bar Bilbao”

Teatro Laburreko Saria
Premio Teatro Breve

Oier Gillán
Herio heroi

2009

HERIO HEROI

Oier Gillán

VII Teatro Laburreko Café Bar Bilbao saria (2009)

HERIO HEROI

PERTSONAIAK:

GELNST anaia iraultzailea.

ZPRIST anaia bakezalea.

SNIFST funtzionario homeopatikoa.

HILDAKOA gorpua.

ESPAZIOA:

Etxe bateko barrualdea.

Sinopsia edo... (prentsan agertutakoa)

“Zprist eta Gelnst anaia umezurtzen istorioa da *Herio heroi*. Etorkizuneko Euskal Herriko uneren batean bizi dira, egoera oso berezian: hildakoek usteltzeari utzi diotenez, bizirik daudenek haien gorpuekin egin behar dute elkarbizitza. Gorpu pilaketaren arazoa ekiditeko gobernu haserrea sor dezakeen txit homeopatikoa guztiak debekatu ditu, gatazka eta gerra ekiditearren. Halako batean, ezagutu ez duten aitaren gorpua kargu egin behar dute anaiek.”

“*Herio heroi* lanarekin, gaur egungo gizartearen hainbat jarrerari erreposoa eman nahi izan dio Gillanek, egoera absurdo batetik abiatzen den umorearen bitartez.”

1. AGERRALDIA

(Etxe baten barrualdea. ZPRISTek "tai chi" moduko ariketak egiten ditu. GELNSTek egunkaria irakurtzen du eserita).

ZPRIST.- Zertan ari zara Gelnst, anaiatxo maitea?

GELNST.- Egunkaria irakurtzen Zprist, anaiatxo samurra.

(Isilunea).

ZPRIST.- Egunkari bat? Uste nuen egunkariak orain ehun urte inguru utzi ziotela existitzeari, hau da, bai, existitzeari.

GELNST.- Hala da bai! O, bai! Mundua gatazkatsua izateari utzi zionean egunkariak desagertu egin ziren, orain ehun bat urte. Albiste onak hasi zirenean, porrot egin zuten egunkariak. Hori entzun dut nik, eta hori uste dut ere.

ZPRIST.- Eta esku artean duzun hori?

GELNST.- Egunkari hau hogeita batgarren mende hasierako egunkari bat da. Iragana oraina baino dibertigarriagoa dela esango nuke.

ZPRIST.- O.

GELNST.- Bai. Etorkizunaren oraina pobrea iruditzen zait, nola esan, monotonoa, erronkarik gabekoa, natazkoa.

ZPRIST.- Natazkoa?

GELNST.- Bai.

ZPRIST.- O, bai.

(Isilune luzea. Ateko txirrina entzuten da).

GELNST.- Hori gure ateko txirrina izan da, ezta? Hau da, gure etxe honen sarreraren atearen ondoan dagoen botoitxoa sakatzean entzun daitekeen soinua, oker ez banago.

ZPRIST.- Baietz esango nuke, are gehiago, baietz esango banu ziur aski asmatu ere egingo nuke.

(Ez dute ezer egiten. Berrito entzuten da txirrina).

ZPRIST.- Atea ireki behar genuke agian, hau da, txirrina atea zabaldu dezagun joko zuen norbaitek, ezta?

GELNST.- Mmmmm... ez naiz inoiz horrelako egoera batean egon... aspaldi zen ez nuela orainarekiko kuriositaterik sentitzen... o... hau malenkonia... edozer gauza egingo nuke

zirrara sentitzearren... manifestazio bat, pankarta bat, manifestu bat... mmmmm...

beingoagatik masturbatzea ez den zerbait!

ZPRIST.- Ez zara zoriontsua, Gelnst?

GELNST.- Ez dakit.

ZPRIST.- O.

GELNST.- Bai.

(Txirrina entzuten da berriro).

GELNST.- Atea irekiko dut.

(Atera gerturatzen da. Arnasa hartzen du sakon. Atea zabaltzen du mantso. SNIFST sartzen da abiadura bizian).

SNIFST.- Egun on! Berdin! Zer moduz! Ondo? Baita ni ere! Joan gaitezen harira! Snifst dut izena.

Herri honetako gobernuko funtzionario mugikorra.

GELNST.- Andere honek funtzionario baten antza du Zprist, anaiatxo samurra.

ZPRIST.- Bai, tira, hara, baietz esango nuke nik. Are gehiago, berak ere funtzionarioa dela esan du.

(Isilunea. SNIFST begiratzten dute arretaz).

ZPRIST.- Zergatik mugitzen da horrela?

GELNST.- Gobernuako funtzionarioek dute estresa eta zirraren monopolio legala.

Sistemak funtzionatu dezan eman zaien pribilegioa.

ZPRIST.- O.

GELNST.- Bai.

ZPRIST.- Oso jakintsua zara Gelnst, anaiatxo maitea.

GELNST.- Dena dago liburuetan Zprist, anaiatxo samurra.

SNIFST.- Harira hortaz! Zprist eta Gelnst jaun edo andere txit gorenen bila nator.

ZPRIST.- Leku aproposera etorri zarela esango nuke nik.

GELNST.- Baita nik ere... ondo baderitzozu.

ZPRIST.- Bai, ondo deritzot, noski.

SNIFST.- Oso ondo! Gobernuak esleitu didan botereen arabera etxe honetan egun bi barru XX-TOP legearen Z artikulua beteko dela jakinaraztera natorkizue.

GELNST.- Ez da posible!

ZPRIST.- Hara! Ahotsaren tonua aldatu zaizu Gelnst, anaiatxo maitea!

SNIFST.- XX-TOP legea betetzea guztiz eta arras posiblea da.

ZPRIST.- O! Zertaz ari da hitz egiten emakume hau, Gelnst?

GELNST.- Mundua aldatu zuen legeaz, Zprist!

ZPRIST.- Zertaz ari zara baina? Urduri jartzen ari naiz, eta ez nago batere ohituta.

GELNST.- Ezta ni ere, Zprist, ezta ni ere.

SNIFST.- XX-TOP legearen Z artikulua dioenaren arabera, jaiotzez jaio den pertsona orok familia, adiskidetasun edo fantasia sexualei dagokionez hildako batekin loturarik izanez gero, hildakoaren gorpua bere gain hartu beharko ditu, behin hildakoa hil dela noski.

ZPRIST.- Zertaz ari da, Gelnst, ene anaiatxo maitea?

GELNST.- Gehiago irakurri behar zenuke, Zprist, ene anaiatxo samurra. Begira. Irakurtzen ari naizen egunkari zahar honetan azaltzen da berria: "Hildakoek usteltzeari utzi diotenetik mundua gorpuekin bete da. Horren ondorioz mundu osoan ezarriko den lege berriaren arabera, guztiz debekatua geldituko da gatazka edo gerra sor dezakeen ezer egitea, haserretzea edo estresatzea barne".

ZPRIST.- O! Hildakoen gorpuen berri banuen, noski, baina ez nekien garai batean usteltzen zirenik.

GELNST.- Usteldu eta are desagertu ere, bizidunen bizitzatik, memoriatik.

SNIFST.- Are gehiago esango nuke nik, alegia, diot, horri esker sartu zen gure gizartea bakearen aro infinituan.

ZPRIST.- O!

GELNST.- Bai. Orduan bukatu ziren iraultzak, jada ez zegoelako munduan zer hobetu.

SNIFST.- Eta horren guzti horren ondorio zilegi eta ohoretsuetako bat da, hain zuzen ere, XX-TOP legearen Z artikulua, zeinean, bizidunok gure hildakoen ardura hartu behar dugun, haiek zaindu eta baldintza onetan gorde, munduaren pisua denon artean har dezagun.

ZPRIST.- Baina... gu umezurtzak gara ordea.

SNIFST.- Hori ez da guztiz egia, are gehiago, zera esango nuke nik, egia ez da guztiz hori. Izan ere, diot, hau da, jaio nonbaitetik jaio baitzineten, eta gobernu txit homeopatikoa eskutik funtzionario honi, hau da, niri, heldu zaion txostenean azaltzen denez, izatez baduzue aitarik, aita biologikoa esan genezakeena, orain gutxi hil eta gorpu bilakatu dena, hain zuzen ere.

GELNST.- Hara...!

ZPRIST.- Gure aita ezagutu ahal izango dugu?

SNIFST.- Hori da, hau da, alegia, hori da hori, diot, bai, ezagutuko duzue, nolabait eta neurri batean bada ere.

GELNST.- *(Kezkatu antzean)* Hara...!

(ZPRISTek GELNST besarkatzen du).

ZPRIST.- Momentu historikoa da hau guretzat, Gelnst, anaiatxo maitea!

2. AGERRALDIA

GELNST.- Ezin dut sinetsi, Zprist!

ZPRIST.- Zertaz ari zara, Gelnst?

GELNST.- Entzun duzu zer esan duen zomorro horrek, Zprist?

ZPRIST.- Nola ez ba, Gelnst.

GELNST.- Zer edo zer egin behar dugu, ez da bidezkoa!

ZPRIST.- Zer ez da bidezkoa?

GELNST.- Guk ez dugu gure aita ezagutu, Zprist! Zergatik jasan behar genuke bere gorpua infinituraino?

ZPRIST.- (*Pozik*). Familia familia da, Gelnst.

GELNST.- Baina hilik dago.

ZPRIST.- Horixe baietz! Azkenean urte hauetan guztietan esan nahi izan diogun guztia esan ahal izango diogu aurpegira, eta entzun beharko gaitu! Maitasuna da bidea! Bakea, eta kafe deskafeinatua!

GELNST.- Baina ezingo digu erantzun Zprist. Eta guk jasan egin beharko dugu. Badakizu hildakoek hil ziren uneko aurpegiko keinua gordetzen dutela infinituraino, eta jan zuten azkeneko gauzaren usaina?

ZPRIST.- Bai zera!

GELNST.- Imajina dezakezu larrua jo bitartean hildako pertsona baten keinua ikusi behar izatea egunero infinituraino?

(GELNSTek larrua jotzearen aurpegia imitatu eta geldirik gelditzen da, ahoa zabalik.

ZPRISTek ahora begiratzen dio).

ZPRIST.- Tira, gauza guztien alde positiboa ikusten jakin behar da, Gelnst, anaiatxo maitea. Hautsontzi modura erabili genezake.

GELNST.- Zuk erretzen duzu, Zprist, anaiatxo samurra?

ZPRIST.- Noski, ni ere batzuetan matxinoa naiz, tabakorik gabeko zigarro bat erretzen dut bazkalorduetan kafeinarik gabeko light esne sojadun batekin.

GELNST.- Kafeinarik gabeko light esne sojadun batekin?

ZPRIST.- Bai, baso ur batekin alegia.

GELNST.- Matxinada bizitzari zapore gehiago ematean datza, Zprist, anaiatxo samurra.

ZPRIST.- Eta zer uste duzu ba Gelnst, anaiatxo maitea? Tabako beltza erreta matxinoagoa zarela, ala?

GELNST.- Ez, nik eraikuntza enpresak erre nahi nituzke.

ZPRIST.- O.

GELNST.- Bai.

(Isilunea).

GELNST.- Eta noizbait gure aita izan zenak, hau da, diot, gaizki isuritako hazi baten ondorioz, hau da, hazi-dente baten ondorioz, gure aita bilakatutakoak, bere azken gau edo egun edo eguerdian odolkia jan izan balu?

ZPRIST.- Zer esan duzu?

GELNST.- Nik? Noiz?

ZPRIST.- Oraintxe.

GELNST.- O, tira, bai, gogoan dut.

(Isilune luzea).

ZPRIST.- Eta?

GELNST.- Zer?

ZPRIST.- Haria galdu dut. Errepikatu dezakezu orain minutu batzuk esan duzuna.

GELNST.- Nik?

ZPRIST.- Bai.

GELNST.- Horretarako zuk errepikatu behar duzu lehenik.

ZPRIST.- Errepikatu zer?

GELNST.- Zuk nik errepikatzea nahi duzuna esan aurretik esan duzuna, alegia. Nik ere haria har dezadan.

ZPRIST.- Baina nik ere haria galdu dut.

GELNST.- O, ez dago arazorik. *(Alkandoran solte duen hari zati bat apurtu eta eman egiten dio).*

ZPRIST.- *(Hasieran harriturik).* O, bai, orain bai. *(Haria eskuetan).* Hor doa...

GELNST.- Prest nago. *(Minutu bat lehenagoko jarrera hartzen du)* ...eta noizbait gure aita izan zenak, hau da, diot, gaizki isuritako hazi baten ondorioz, hau da, hazi-dente baten ondorioz, gure aita bilakatutakoak, bere azken gau edo egun edo eguerdian odolkia jan izan balu? Ulertzen duzu zer esan nahi dudan?

ZPRIST.- Ez. Elkarrizketa gatazkatsuak debekatu zituztenetik gure gobernu txit homeopatikokoak ezarritako dialektika demokratikoa nekagarria egiten zait batzuetan...

GELNST.- Niri ere, noizean behin eztabaida sutsuren bat edukitzea, borrokaren bat, hostia pare bat eman ahal izatea... maitasunez, noski!

(Elkarri begiratzten diote borrokarako tentaturik).

GELNST.- Ez.

ZPRIST.-Ez.

GELNST.- Tira, lehen esan dizudan moduan, noizbait gure aita izan zenak, hau da, diot, gaizki isuritako hazi baten ondorioz, hau da, hazi-dente baten ondorioz, gure aita bilakatutakoak, bere azken gau edo egun edo eguerdian odolkia jan izan balu?

ZPRIST.- Orduan, odolkiaren usaina jasan behar genuke infinituraino. *(Isilunea)*. Gauza latzagoak egon litezke hala ere.

GELNST.- Zuk uste?

ZPRIST.- Pentsa jan izan balu... zera... odolkia tipula eta baratxuriarekin.

GELNST.- O... bai. Etxe guztia izango genuke egunero usain horrekin, ahoa josi behar genioke.

ZPRIST.- Hori ideia ona da, horrela ez genuke sekula haria galduko.

GELNST.- Hala ere usaina beste leku batzuetatik atera liteke.

ZPRIST.- Bai, besapeetatik, ipurditik... *(Pentsakor gelditzen da)*. Nola zaindu behar da hildako bat, Gelnst, anaiatxo maitea?

GELNST.- Ez da batere erraza, Zprist, anaiatxo samurra. Hildakoek usteltzeari utzi ziotenean aldatu zen munduko kultura, antolakuntza soziala eta politikoa, munduko historia, munduko histeria! Mundua onomatopeia erraldoia bilakatu zen, Zprist, gure izenen modukoa.

ZPRIST.- Hildakoak... izerditzen dira?

GELNST.- O bai, azal guztiarekin, pentsa odolkia, tipula eta piper gorriaren usaina duen izerdia larrua jo osteko aurpegiarekin...

ZPRIST.- Egunero hori jasan behar izatea ...

GELNST.- Aurpegi hori...

ZPRIST.- Usain hori...

GELNST.- Gosaltzen ari zarenean...

ZPRIST.- Hortzak garbitzen ari zarenean...

GELNST.- Filma bat ikusten ari zarenean...

ZPRIST.- Norbaitekin mitaketan ari zarenean...

GELNST.- Usain hori...

ZPRIST.- Aurpegi hori...

GELNST.- Odolkia, tipula eta piper gorriarekin...

ZPRIST.- Larrua jo osteko aurpegiarekin...

GELNST.- Ez da bidezkoa!

ZPRIST.- Aita ezagutuko dugu azkenean...

GELNST.- Ez dugu zertan iraganaren pisua gure gain eraman behar!

ZPRIST.- Esan nahi nion guztia esan ahal izango diot...

GELNST.- Iraultza behar dugu!

ZPRIST.- Zer ari zara esaten baina, Gelnst! Haserretzea debekatua dago eta iraultza ezinezkoa da haserretu gabe. Pentsa polizia homeopatikoa akabatzen zaituela, orduan ni nintzateke seniderik hurkoena, nik zaindu behar nuke zure gorpua. Hori gertatzen bada akabatuko zaitut!

GELNST.- Akabatzen banauzu zuk zaindu beharko duzu nire gorpua.

ZPRIST.- Kaka zaharra, ez dago ihesbiderik.

GELNST.- Ez da bidezkoa ihesbiderik ez egotea! Kartzelan sartuz gero ere zure hildako guztiekin sartzen zaituzte ziega berean.

ZPRIST.- O!

GELNST.- Oporretan joanez gero zure hildakoak eraman behar dituzu autoan. Ez da bidezkoa!

ZPRIST.- O!

GELNST.- Bai!

ZPRIST.- Eta seniderik gabeko gorpuekin zer egiten dute?

GELNST.- Artistei oparitu, hildakoak nahi bezala jantzi eta haiekin arte lanak egin ditzaten.

ZPRIST.- O! Neure buruaz beste egiten badut artelan bilakatuko naiz!

GELNST.- Ez, debekaturik dago zure buruaz beste egitea. Suizidatuz gero koltxoiak betetzeko erabiliko zaituzte. Legea da.

ZPRIST.- O.

GELNST.- Bai... Iraultza behar dugu! Hildakorik gabeko iraultza!

ZPRIST.- Ez dakit nola egin daitekeen hori. Eta gainera bakezalea naiz.

GELNST.- Bakezalea? Baina hor kanpoan, hildakorik gabeko gatazka bat dago!

ZPRIST.- Horregatik naiz bakezalea. Besteek egin dezatela nahi dutena, baina ni bakean utzita.

GELNST.- Tristea zara, Zprist! XX. mendean ez zen horrelakorik gertatzen, orduan elkartasuna zegoen, bakea irabazi egin behar zen, guztiontzat izan zedin.

ZPRIST.- Orain hildakoek ere ez gaituzte bakean uzten.

GELNST.- Ez.

(Isilune luzea).

ZPRIST.- Nolakoa zen gure aita?

GELNST.- Ez dakit.

ZPRIST.- Ez duzu gogoratzen?

GELNST.- Ez dut gogoratu nahi.

ZPRIST.- Zu ni baino helduagoa zinen etxetik joan zenean. Zergatik ez duzu gogoratu nahi?

GELNST.- Iragana hilda dago.

ZPRIST.- Bai, baina iragana itzultzen da beti.

(Isilunea).

ZPRIST.- Saia zaitetz, arren, saia zaitetz zerbait gogoratzen!

GELNST.- Baina... ez duzu ikusten lanpetua nagoela?

ZPRIST.- Zertan ari zara ba?

GELNST.- Iraultza bat ari naiz prestatzen.

ZPRIST.- A bai? *(Begira gelditzen zaio arretaz).* Eta zer ari zara ba egiten iraultza prestatzeko?

GELNST.- Ez duzu ikusten?

ZPRIST.- Ez.

GELNST.- Saiatu zaitetz hobeto, ea zer edo zer ikasten duzun.

(Saiatzen da).

ZPRIST.- Ba ez, ez dakit.

GELNST.- Ez duzu ezer ulertzen, Zprist. Pentsatzen ari naiz, pentsatzen! Zer da pentsamendu politikorik gabeko iraultza bat? Zer lirateke XX. mendeko iraultza haiek pentsalaririk, teologorik, manifestu idazlerik gabe?

ZPRIST.- O, barkatu. Ba segi, segi... *(Zeharka begiratzen du)*. Ba ni iraultza egitea zer edo zer zirrargarria izango zelakoan nengoen.

GELNST.- Baita ni ere. Gainera ez zait ezer bururatzen.

ZPRIST.- Horretarako nahiago dut masturbatu intsentsua jarrita.

GELNST.- Nola sortu ote zen marxismoa? Eta komunismoa? Eta sozialismoa? Zer ordu zen? Zer eguraldi egiten zuen? Ba ote zebilen jenderik kalean?

(Isilunea).

ZPRIST.- Aizu Gelnst! Nolakoa zen aita?

GELNST.- Ez dakit.

ZPRIST.- Ez duzu gogoratzen?

GELNST.- Ez dut gogoratu nahi.

ZPRIST.- Zu ni baino helduagoa zinen etxetik joan zenean. Zergatik ez duzu gogoratu nahi?

GELNST.- Iragana hilda dago.

ZPRIST.- Bai, baina iragana itzultzen da beti.

(Isilunea).

ZPRIST.- Saia zaitetz, arren, saia zaitetz zerbait gogoratzen!

GELNST.- Ezin dut! Oso txikiak ginela joan zen.

ZPRIST.- Baina Gelnst, zuk hemezortzi urte zenituen.

GELNST.- Bai, eta zer, oraindik ez nintzen nahikoa bizitakoa, esperientzia politikoari dagokionez ez nuen bizitza ezagutzen. Badakizu, egungo haurrak hogeita hamar urte bete arte ez dira gazte kontsideratzen.

ZPRIST.- Mesedez...

GELNST.- Ez dut ezer gogoratzen.

ZPRIST.- Mesedez...

GELNST.- Baina... zertarako nahi duzu gure aita gogoratu? Haurrak ginela joan zen, bakarrik utzi gintuen! Nola utz daitezke atzean hemezortzi urteko haur bat, eta hogeita bosteko bere anaia txikia.

ZPRIST.- (*Alboetara begiratzen du*) Zer esan duzu, Gelnst? Nik hogeita bost urte nituen?

GELNST.- Bai, Zprist, anaiatxo samurra.

ZPRIST.- Hau poza! (*Ispilu bat bilatzen du*). Oraindik gaztea naizela esango nuke ba.

GELNST.- Bai, Arantzazun egindako eusko labeleko "first comunion body milk" hartzen hasi zinenetik, asko aldatu zara.

ZPRIST.- Hogeita bost urte nituen aitak utzi gintuenean... o... eta orain... zenbat ditut orain?

GELNST.- Berrogeita hamabost.

ZPRIST.- O, bai gizarte aurreratua, gurea! Zer litzateke Euskal Herria "first komunio body milk" gabe? Zer gehiago ez dut gogoratzen gure haurtzaroaz, anaiatxo?

GELNST.- Ez dakit, denbora asko pasa da.

ZPRIST.- Nolakoa zen aita?

GELNST.- Ez dakit.

ZPRIST.- Ez duzu gogoratzen?

GELNST.- Ez dut gogoratu nahi.

ZPRIST.- Zu ni baino helduagoa zinen etxetik joan zenean. Zergatik ez duzu gogoratu nahi?

GELNST.- Iragana hilda dago.

ZPRIST.- Bai, baina iragana itzultzen da beti.

(Isilunea).

ZPRIST.- Saia zaitez, arren, saia zaitez zerbait gogoratzen!

GELNST.- Ezin dut.

ZPRIST.- Nik ez dut ezer gogoratzen, eta gogoratu nahi nuke.

GELNST.- Zertarako nahi duzu gogoratu? Gauza garrantzitsuagoak daude munduan.

ZPRIST.- Adibidez?

GELNST.- Adibidez... adibidez... gosea! Egin dezagun iraultza arazo hori konpontzeko!

ZPRIST.- Jada ez dago goserik Gelnst. Gobernu txit homeopatikoa konpondu egin zuen gatazka hori, hildako gehiegi egon ez zedin.

GELNST.- Ba adibidez... adibidez... emakumeen aurkako bortizkeria! Egin dezagun iraultza, haiek askatzeko!

ZPRIST.- Jada ez dago bortizkeriarik. Gobernu txit homeopatikoa konpondu egin zuen gatazka hori, hildako gehiegi egon ez zedin.

GELNST.- Ba orduan... orduan... haur soldaduen gatazka...

ZPRIST.- Ez dago...

GELNST.- Kapitalismoaren eragina langileengan...

ZPRIST.- Ez dago...

GELNST.- Euskal gatazka...

ZPRIST.- Ez dago...

GELNST.- Hizkuntza gutxituak...

ZPRIST.- Ez dago...

GELNST.- Herri indigenak...

ZPRIST.- Ez dago...

GELNST.- Ba orduan... orduan... memoria historikoa! Egin dezagun iraultza munduko diktadorek eraildakoen ametsak, poemak eta memoria suspertzeko!

ZPRIST.- Hori ere konpondu zuten, Gelnst, gatazkek sortzen zituzten gauza guztiak debekatu eta are konpondu zituzten, hildakoen kopurua murrizteko. Non sartu hildakoak bestela?

GELNST.- Baina zer mundu klase da hau? Zer da pertsona baten bizitza elkartasunik gabe, borrokatzeko arrazoirik gabe, mundu hobea bat eraikitzeko grinarik gabe?

ZPRIST.- Nahi duzu body milk?

GELNST.- Ez dut nahi body milk!

ZPRIST.- (*Gorputzean krema zabaltzen*). Ez dago munduan demokrazia baino sistema hidratatzaileagorik... hau bakea...

(*GELNST pentsakor gelditu da*).

GELNST.- Badakit! Debekuaren kontrako iraultza! Zer da bizitza aukeratzeko aukerarik gabe? Askatasunik gabe azken batean?

(GELNST garaile sentitzen da, ZPRISTek alde batera uzten du krema, kezkatuik).

ZPRIST.- Bakean bizi zaitezkeen arren gatazka aukeratuko duzu? Horretarako nahi duzu askatasuna?

GELNST.- Gatazkarik ez dudala nahi aukeratzeko lehenik aukeratzeko aukera eduki behar dut!

ZPRIST.- Baina bortizkeria sortuko da...

GELNST.- Bai...

ZPRIST.- Ez dizut utziko...

(Elkarri begira jartzen dira, lehian, borrokan hasteko zorian, tentaturik. Lasaitzen dira azkenean).

GELNST.- Ez da bidea...

ZPRIST.- Ez...

(Isilune luzea. ZPRIST "tai chi" egiten hasi da, GELNST irakurtzen).

ZPRIST.- Zer ari zara irakurtzen, Gelnst, anaiatxo maitea?

GELNST.- Iragana, Zprist, anaiatxo samurra.

ZPRIST.- Eta... dibertigarria da?

GELNST.- Ez dakit. Baina zer pentsatua ematen du.

ZPRIST.- A.

GELNST.- Bai.

(Isilunea. Bakoitzak berean jarraitzen du).

ZPRIST.- Aizu Gelnst! Nolakoa zen aita?

GELNST.- Ez dakit.

ZPRIST.- Ez duzu gogoratzen?

GELNST.- Ez dut gogoratu nahi.

ZPRIST.- Zu ni baino helduagoa zinen. Zergatik ez duzu gogoratu nahi?

GELNST.- Iragana hilda dago.

ZPRIST.- Bai, baina iragana itzultzen da beti. *(Isilunea)*. Ez duzu gogoratzen mendira joan ginen eguna?

GELNST.- Gurekin haserretu eta bakarrik utzi gintuen aldi hura?

ZPRIST.- Bai.

GELNST.- Ez, ez dut gogoratzen.

ZPRIST.- Ezta nik ere. *(Isilunea)*. Eta etxera kaletik alai eta dantzatzen iristen zenekoa?

GELNST.- Mozkorrik etortzen zenekoa esan nahi duzu?

ZPRIST.- Bai.

GELNST.- Ba ez, ez dut gogoratzen.

ZPRIST.- Ezta nik ere. *(Isilunea)*. Eta amari izugarri maite zuela esaten zionekoa?

GELNST.- Eskuak lepoan jarrita esaten zionekoa esan nahi duzu?

ZPRIST.- Bai!

GELNST.- Ba ez, ez dut gogoratzen.

ZPRIST.- Ezta nik ere. (*Isilunea*). Eta ikastolan gure futbol taldearen entrenatzaile ibili zenekoa, oroitzen duzu?

GELNST.- Beti oihuka, lagun guztien aurrean barregarri uzten gintuenekoa?

ZPRIST.- Bai!

GELNST.- Ba ez, ez dut gogoratzen.

ZPRIST.- Ezta nik ere. (*Isilunea*). Eta etxetik joan zeneko eguna, oroitzen duzu? Agur esan zigun muxu bana emanda.

GELNST.- Ama ere joan zitzaigun egun horretan. Joanarazi egin zuen. Egundioz hura diozu?

ZPRIST.- Bai.

GELNST.- Ba ez, ez dut gogoratzen.

ZPRIST.- Ezta nik ere. (*Larritzen hasia*). Erbestera bidali ote zuten gure aita amarekin bortizkeria erabiltzeagatik?

GELNST.- Ez dakit, ez dut oroitzen.

ZPRIST.- Ezta nik ere. (*Erabat larrituta*) Arraioa, ez dut ezer oroitzen!

GELNST.- Hori demokrata zarelako da.

ZPRIST.- Zer esan nahi duzu?

GELNST.- Demokrasiak gizarteari gertatu zaion gezurrik handiena da. Demokrasiak ahanzturan berdintzen gaitu.

ZPRIST.- Baina zer diozu! Demokrasiari esker dugu bakea! Demokrazia eskubideen berdintasuna da!

GELNST.- Demokrazia berdintasuna da. Eta kito. Ezberdina desagerraraztea da demokrazia. Denok historia berdina izatea. Denok gauza berak oroitzea. Denok gauza berak ahaztea.

ZPRIST.- O, iraultzaileak hitz egin du, oroimen selektiboa eta partziala duena.

GELNST.- Nire historia ezkutuan oroitza behartzen dit demokraziak.

ZPRIST.- O, zu bai iraultzailea! Zure haurtzaroa ezabatu egin duzu burutik, nahi duzuna oroitzen duzu soilik!

GELNST.- Ez da egia. Injustiziarekin amaitzeko gogoaren oroitzapena gelditzen zait.

ZPRIST.- Iraultzaileak dira egoistarik handienak!

GELNST.- Zuk ere ahaztu duzu.

ZPRIST.- Bai, baina demokratikoki, modu baketsuan.

GELNST.- Gizartea hipokritaz beterik dago.

ZPRIST.- Ezkertiar memeloa! Zer egin zenuen zuk zure ama defendatzeko?

GELNST.- Negoziatu. Elkarrizketa bultzatu.

ZPRIST.- Eta?

GELNST.- Ez elkarrizketa, eta ez elkar hilketa ere. Ama joan zitzaigun aitaren eskuetan.

Ikusi zertarako balio duen demokraziak! Zer edo zer gertatzen denean ezer ez egiteko!

ZPRIST.- Ikusi zertarako balio duen iraultzak, zer edo zer gertatzen denean dena izorratzeko!

(Bien arteko giroa berotzen joan da, eta aurreko bi tentaldietan bezala aurrez aurre bukatu dute, bestea borrokarako zorian neurtzen).

GELNST.- Grrrr...

ZPRIST.- Ugnst...

(Borrokan hasi dira, bortizki hasieran, baina azkenean gozamenaz dute, jolas bat balitz bezala, haurrak moduan).

GELNST.- Hau zoragarria da, Zprist, anaiatxo samurra!

ZPRIST.- Hau zirraragarria delagehituko nuke nik, Gelnst, anaiatxo maitea!

GELNST.- Ezin dut ulertu nola dagoen debekatua.

ZPRIST.- Nik ulertu dezaket, eta hala ere...!

GELNST.- Gora masturbazio dialektikoa!

ZPRIST.- Gora masturbazioaren elkartasuna!

(Bakoitzak bere buruari hasi zaio joka, gozatzen).

3. AGERRALDIA

(SNIFST azaldu da hildakoa gurdi batean duelarik. ZPRIST eta GELNST gelaren bazter batean daude elkarri goxoki helduta, zain eta urduri).

SNIFST.- Hementxe duzue paketea. Sinatu orri hau mesedez. *(ZPRISTek sinatzen du).*

Biok mesedez. *(GELNSTek ere sinatzen du, baina gogorik gabe).*

SNIFST.- Hauxe duzue paketearen kurrikuluma:

Ilea: gutxi.

Pisua: eztaba daezina.

Tatuajeak: bost.

Azazkalak: bi zentimetroko zikintasuna.

Azken janaria: odolkoa tipula eta baratxuriarekin.

GELNST.- Kaka zaharra!

SNIFST.- *(Haserre begiratzen du, eta irakurtzen jarraitzen du).* Hil aurreko azken keinua...

ZPRIST.- *(Ahapeka)* Ez dadila izan larrua jotzen zegoeneko...!

SINIFST.- Definiezia.

(ZPRIST eta GELNSTen harridura).

GELNST.- Nola?

ZPRIST.- Definiezia?

SNIFST.- Bai, definiezia. Ez dago katalogatua azken keinu hau...

(Buelta ematen dio gurdiari).

GELNST.- Hara!

ZPRIST.- O!

SNIFST.- Ez da oso atsegina ezta?

GELNST.- Tira...

ZPRIST.- Ez dakit, begiak erdi itxita begiratzuz gero... ez dago horren gaizki...

GELNST.- Ezin da aldatu?

SNIFST.- Baina zer ari zara esaten! Lege homeopatikoarekin txantxarik ez gero! Ezin da aldatu! Hori bai, plus bat ordaintzen baduzu garantia ere badu, hildakoarentzat ile apaindegi zerbitzua opari.

GELNST.- Ezta pentsatu ere! Hogeita hamar urte ikusi gabe egon eta gero apaintzera eraman behar al dugu ba!

ZPRIST.- Gelnst, bizarra luzatzen uzten badiogu badakigu armiarmek non jarriko duten sarea, eta jakin ere badakizu gustukoa dudala etxea garbi edukitzea! Bestela ere badugu nahiko lan hautsa kentzen, pentsa zahia ateratzen hasten bazaio!

(Hildakoari so gelditzen dira, pentsakor).

GELNST.- Aurpegi hori...

SNIFST.- Hori... hori?

GELNST.- Hori.

SNIFST.- Zalantzarik gabe, bai.

ZPRIST.- Zalantzarik gabe, zer?

SNIFST.- Zalantzarik gabe hori, hau da, diot, zera, horia dagoela.

ZPRIST.- Bai, hori esango nuke nik.

GELNST.- Hori bai, falta zitzaiguna, hori!

SNIFST.- Kolorearekin ez, baina keinuarekin egin genezake zerbait.

GELNST.- Zer?

SNIFST.- Ni masajista psikologikoa naiz.

ZPRIST.- Zer da hori? Terapia berri bat? Nik nahi dut...!

SNIFST.- Aurpegian masajeak emanez jendearen keinuak aldatzea lortzen dut.

ZPRIST.- (*GELNSTeri begira*) Baita bizirik daudenei ere?

GELNST.- Aizu...!

SNIFST.- Hilik daudenei.

ZPRIST.- Saia gaitezen.

GELNST.- Baina... zoratu al zara?!

SNIFST.- Et-et-et! Bortizkeria da hori? Isuna jarriko dizut!

ZPRIST.- Ez-ez-ez... zoratu al zara... zera... maitasunez diot... noski.

SNIFST.- Tira ba, ekin diezaiogun lanari.

(SNIFST hildakoaren aurrean jartzen da publikoari bizkarra emanez eta lanean sumatzen dugu. Buelta emango du hiru-lau aldiz, hildakoaren aurpegi keinu ezberdinak erakutsiz bi anaiei. Laugarrenean edo gustura geldituko dira harekin).

ZPRIST.- Nigatik hau ondo dago. Zuri zer iruditzen zaizu Gelnst?

GELNST.- Bai... tira... ez badago besterik... nik zera esango nuke...

ZPRIST.- Zer?

GELNST.- Zerbaiten antza hartzen diot nik ba...

SNIFST.- Hara! Konturatu zara!

ZPRIST.- Zerbaiten antza... ez dakit nik...

GELNST.- Zerbaiten edo norbaiten...

(ZPRISTek oharkabearen hildakoaren keinu berdina jarri duela ikusten dugu, eta GELNSTek zeharka begiratzeko duela).

SNIFST.- Nik esango dizuet zeren edo noren antza duen, are gehiago, nik esango dizuet! Arro nago eta, egindako lanarekin!

GELNST.- Esan ezazu, bada.

SNIFST.- *(Geldiunea, misterioa sortu nahian bezala).* Demokraziaren aurpegiera jarri diot, hau da, alegia, demokratikoki hil den pertsona baten keinua, are gehiago, nik esango nuke ez bairik gabe, zera, hau da, alegia, demokrazian demokratikoki hil den pertsona baten keinu eztaba daezina dela.

GELNST.- *(Etsiturik).* Hau da hau...

ZPRIST.- O... bai! Baina... heriotza demokratikoa ote da?

SNIFST.- Heriotza da mundu demokratikoan gauzarik demokratikoena!

GELNST.- *(Maltzurki)* Hara... bai? Denok hiltzen gara baldintza berdinetan? XX. mendean heriotza gauzarik antidemokratikoena zen. Heriotza ez zen denontzat berdina. Gogoratu gosea, emakumeen kontrako bortxakeria, lan istripuak, polizia komisarietako torturak, lehergailuak...

SNIFST.- Iraganeko kontuak denak! Nik zera esango nuke, esango dudanez, egun modu baketsuan hiltzen garela denok, hau da, diot, bakeak hiltzen gaituela!

ZPRIST.- Bakea? Ba... kea ateratzen zaio honi!

SNIFST.- *(Hildakoari ahoa ireki eta hatzak barruan sartuz)* Hara, zigarroa ondo itzali nuelakoan nengoen, hau da, tira, esan nahi nuke...

GELNST.- Bai, bai, ulertu dut... *(Korrika irten da)*.

ZPRIST.- Bakeari kea, bakea sutan ote dago barrutik...

SNIFST.- Txingarrak asko jota. Zailak dira horiek itzaltzen...

(GELNST azaltzen da kubo bete ur duela, eta SNIFST eta hildakoari gainera botatzen die).

SNIFST.- Baina... hau... hori...

ZPRIST.- Hori ez! Horia ez jada, zikinkeria besterik ez zen izango...

SNIFST.- Baina... hau... hori...

GELNST.- Behingoagatik esan duzu zentzuzko zerbait. Hau ez da hori baina hau h-ura da. *(ZPRISTERi begiratzen dio)*. Debekatua dagoen h-ura da gainetik bota behar dena.

4. AGERRALDIA

(HILDAKOA eskenatokiaren erdian dago, gurdiaren gainean, publikoari aurpegia emanaz. GELNST eta ZPRIST albo banatan, azken hau HILDAKOari ilea lehortzen ari zaio).

ZPRIST.- Zer egingo dugu orain, Gelnst?

GELNST.- Ez dakit, Zprist. *(Isilunea)*. Ez zenuen berarekin hitz egin nahi?

ZPRIST.- Bai. Baina orain ez zait ezer bururatzen.

GELNST.- Lasai, urteak dituzu aurretik pentsatzeko.

ZPRIST.- Bai, baina... ez dakit... zer edo zer sentitzea espero nuen.

GELNST.- Zer edo zer sentitu?

ZPRIST.- Bai. Tira, ez dakit... *(Geldiunea)*. Zuk ez diozu ezer esan behar?

GELNST.- Nik? *(Geldiunea)*. Ez. Ezezagun bat da niretzat. Are gehiago, ez dut uste bera denik.

ZPRIST.- *(Lehortzeari uzten dio)*. Nola ez direla bera?

(GELNSTek keinu bat egiten dio, gerturatzeko. Eskenatokiaren albo batera joaten dira, ahapeka hitz egiten dute).

GELNST.- Susmoa dut hau ez dela gure aita. Ez dakit nor den tipo hau.

ZPRIST.- Baina Gelnst... paperean argi eta garbi jartzen du...

GELNST.- Noiztik esaten dute egia paperek...

ZPRIST.- Baina Gelnst... zergatik uste duzu ez dela bera...?

GELNST.- Sekretu bat aitortuko dizut. Gure aitak zera zuen... eztarriko karranka kronikoa.

ZPRIST.- Eztarriko karranka kronikoa?

GELNST.- Karranka kronikoa.

ZPRIST.- O... nolakoa?

GELNST.- Horrelako zerbait zen... ejum jjjmmnn

ZPRIST.- O... probatu dezakezu agudoak sartzen...?

GELNST.- Ellum llmmnnn...

ZPRIST.- *(Gogoratu balu bezala)* O, bai!

GELNST.- *(Pozik)* Gogoratzen duzu?

ZPRIST.- Ez.

(Isilunea. Pentsakor gelditzen dira).

ZPRIST.- Aizu Gelnst, anaiatxo maitea.

GELNST.- Zer Zprist, anaiatxo samurra?

ZPRIST.- Zergatik hitz egiten dugu horrela?

GELNST.- Horrela... nola?

ZPRIST.- Horrela... ahapeka.

GELNST.- Zergatik zergatik?

ZPRIST.- Ez dakit konturatu zaren baina, ezin gaitu entzun, hilik dago...

GELNST.- Zer? A, bai, noski... *(Ozenki eta eskenatokian zehar mugitzen)* A, BAI, NOSKI!!!

Zer uste duzu ba, hildako baten beldur naizela? Mesedez!

ZPRIST.- Ba nik zer edo zer esan nahi nioke baina ez dakit zer. Azken finean gure aita da.

GELNST.- Ez ezazu hitz hori aitatu ere egin! (*Geldiunea*) Aizu Zprist, zuk ez duzu barkamen-terapia bat egin joan den hilean?

ZPRIST.- Joan den hilean... ua! (*Izututa*) Joan den HILEAN! Nola egingo dut ba terapia joan den hildako baten gainean.

GELNST.- Heldu den hilean egin dezakezu.

ZPRIST.- Zer ari zara baina, hilean behin ilea erortzen zait urduritasunarekin!

GELNST.- Ondo da, ondo da...

ZPRIST.- Ez tira, saiatuko naiz. Barkamen terapia demokratiko bakezale homeopatikoa... ondo da...

(ZPRIST hildakoarengana gerturatzen da, beste aldera begiratzen).

ZPRIST.- Ukimenaren bidez barkatu daiteke jendea, komunikazio fisikoa berreskuratuz. Hori izan zen lehen lezioa.

(Besoa luzatzen du urduri, hildakoari begiratu gabe. GELNSTek besotik heltzen dio lagundu nahian, baina ZPRIST gehiago izutzen da, hildakoak heldu diola pentsatuta).

ZPRIST.- Ua! Heldu den hilean!

GELNST.- Lasai txikito! Ni naizela!

ZPRIST.- Ondo da, lasaituko naiz, lasaituko naiz... barrenak hustu, hori zen bigarren lezioa, barruan ezer ez gordetzea.

(Buelta eman eta HILDAKOari begiratzen dio aurpegira. Arnasa sakon hartzen du).

ZPRIST.- Aita... zurekin hitz egin nahi nuke... *(Ustekabean salto egin eta aita lepotik hatzen du, gogor astinduz)*. ZERGATIK EGIN ZENUEN EGIN ZENUENA! ZERGATIK EGIN ZENUEN EGIN ZENUENA NIK EGIN ZENUEN HORI GOGORATZEN EZ DUDAN ARREN! ARREN! OTOI! ZERGATIK ARI ZARA ORAIN ZERGATIK EGIN ZENUEN EGIN ZENUEN HURA ALEGIA EGIN ZENUENA ZERGATIK EGIN ZENUEN JAKINGO BAZENU BEZALA EGITEN EGIN ZENUENA EGIN ZENUELA ERE NIK EGIN ZENUEN HORI GOGORATZEN EZ DUDAN ARREN!!!

GELNST.- Zprist...

ZPRIST.- ZER!?

GELNST. - Kontuz bortizkeriarekin... isuna jarriko dizute eta.

ZPRIST.- Itxoin, hirugarren lezioa falta da: aurpegia astinduko diot orain.

GELNST.- Astindu? Baina hori al da barkamen terapia?

ZPRIST.- Noski. Gero berak barkatu behar nau ni.

GELNST.- Baina zu ez zara bortizkeriaren aldekoa.

ZPRIST.- Noski ezetz! Baina bortizkeria hau legala da, ofiziala, homologatua! Gida baimeneko puntuak itzultzen dizkizute!

GELNST.- Tira, tira, utz dezagun beste baterako.

ZPRIST.- Zer? Baina ez al zinen zu bortizkeriaren aldekoa? Iraultza egin nahi zuena?

GELNST.- Bai, baina desobedientzia zibila erradikala da erabili nahi dudana, buruak barrutik astindu, gizartea barrutik eraldatu.

ZPRIST.- *(Lasai bat batean, ezer gertatu ez balitz bezala)*. O, eta nola egiten da hori,

Gelnst, anaiatxo maitea?

GELNST.- Ekintza sinbolikoak eginez, ekintza sinbolikoak zeinetan norbera den eredu!

ZPRIST.- Adibidez?

GELNST.- Egia esan, ez dakit. (*Geldiunea*) Adibidez, zer egingo dugu berarekin?

ZPRIST.- Norekin?

GELNST.- Badakizu... (*Ahapeka*). Berarekin...

ZPRIST.- U! Aitarekin! Ba, ez dakit, egia esan. Etxe honetan ez dugu leku askorik. Non jartzen dira hildakoak etxe batean? Gure argazki albumean ez da sartuko.

GELNST.- Horixe bera ba! Hori izango da gure ekintza sinbolikoa!

ZPRIST.- Zein?

GELNST.- Zergatik onartu behar dugu bidezkoa ez den lege batek dioena?

ZPRIST.- Gehiengoak onartu duelako?

GELNST.- Eta gehiengoak ez badu arrazoirik?

ZPRIST.- Ba orduan... orduan... orduan bortizkeria subentzionatu homologatuaren aukera dago.

GELNST.- Horixe ba! Horri egin behar zaio aurre! Gainera, gauza bat esango dizut: ez da egia legearen jabe direnek gehiengoa direnik.

ZPRIST.- A, ez? Zergatik?

GELNST.- Gizartearen gehiengoa hilik dagoelako. Hildakoek usteltzeari utzi ziotenetik gehiago dira hildakoak.

ZPRIST.- Baina beraiek ezin dute hitz egin.

GELNST.- Horixe ba! Ahotsa emango diegu hildakoei ekintza sinboliko baten bidez!

ZPRIST.- Bai zera! Bestela ere nahiko lan badugu hildako hau etxean non gordeko dugun erabakitzen!

GELNST.- Hortxe dago kokka. Munduari erakutsiko diogu ez dagoela hildakoentzat lekurik, eskubidea dugula bizirik gaudenok gure bizitza egiteko, iraganarekiko morrontzarik gabe! Hildakoek ere bakean bizitzeko eskubidea dute, gehiengoa dira eta ez dute bizi baldintza onik gure artean!

ZPRIST.- Seguru zaude ez dagoela lekurik hildakoentzat gure artean?

GELNST.- Froga dezagun gure tesia.

(GELNSTek eta ZPRISTek hildakoari so egiten diote, harenagana gerturatu eta bien artean hartzen dute. Etxean batetik bestera daramate, ondo geldituko den lekuaren bila).

GELNST.- Bainuontzian!

(Hildakoa haraino eraman eta proba egiten dute).

ZPRIST.- Ez, ez, horrela ezin dut. Ezin naiz biluztu hildako bat nire zakilari begira edukita.

GELNST.- Sexu organoen intimitate eskubidearen urraketa! Hildakoen dutxatzeko eskubidearen urraketa! *(Geldiunea)*. Ohean!

(Hildakoa haraino eraman eta proba egiten dute).

ZPRIST.- Ez, ez, horrela ezin dut. Eta zurrunga egiten badu zer? Lurpean dagoena ez du inork entzuten, baina nire ohean zurrunga egiten badu... gainera ezin zaio esnatu zurrunga egiteari utz dezan esateko...

GELNST.- Bizirik gaudenok amesteko dugun eskubidearen urraketa! Hildakoek zurrunga egiteko duten eskubidearen urraketa! (*Geldiunea*). Garbigailuan!

(Sartzen saiatu dira, osorik ez bada ere).

ZPRIST.- Ez, ez, horrela ezin da. Eta hildakoa garbigailuan zorabiatu eta botaka egiten badu arropa gainean?

GELNST.- Bizidunok arropa garbitzeko dugun eskubidearen urraketa! Hildakoek ez zorabiatzeko duten eskubidearen urraketa! (*Geldiunea*). Armairuan!

(Hildakoa haraino eraman eta proba egin dute).

ZPRIST.- Ez, ez, horrela ezin da. Ezin dugu gure aita arropa behar dugun bakoitzean armairutik atera. Nola aterako dugu armairutik ez badugu bere aukera sexuala ezagutzen?

GELNST.- Bizidunok arropa lisaturik gordetzeko dugun eskubidearen urraketa! Hildakoek bere aukera sexuala agerian uzteko edo isilean gordetzeko duten eskubidearen urraketa! (*Geldiunea*). Bila dezagun beste leku bat.

(ZPRISTek bizkar gainean hartzen du eta bueltaka hasten dira).

GELNST.- Hozkailuan...! Komunean eserita...! Arroparekin batera zintzilik leihoan...!

(GELNSTek emozionaturik amaitzen du, eta ZPRISTek ordea nekaturik, hildakoa bizkarrean duela).

ZPRIST.- Ezin dut gehiago, Gelnst. Lehertuta nago. Ez dakit non utzi. Bizkarrean eraman beharko dut beti...

(GELNSTen aurpegia ikusten dugu, zer edo zer bururatu balitzaio bezala).

GELNST.- Horixe da, anaiatxo! Topatu duzu gure ekintza sinbolikoaren funtsa!

ZPRIST.- A... bai?

GELNST.- Hildakoak bizkarrean ditugula bizi beharko gara, munduak ikusi beharko du arazo honen neurria! Hildakoen pisua bizkarrean dugularik, mundua mantsoago mugituko da! Egin dezagun iraultza! Zu zeu hasiko zara, anaiatxo!

ZPRIST.- Ni? Ezbaian jartzen dut ohore eztabaidaezin hori, Gelnst, anaiatxo maitea.

GELNST.- Ez da zalantza egiteko unea, iraultzaren unea baizik! Irten zaitez kalera, erakutsi iezaiozu munduari iraganaren pisua!

(ZPRIST altxa da hildakoarekin bizkarrean).

ZPRIST.- Banoa. *(Geldiunea)*. Nora noa baina?

GELNST.- Garrantzitsuena ez da nora, nola baizik!

(Badoa ZPRIST, GELNST pozik utzirik).

4. AGERRALDIA

(ZPRIST ikusi dugu hildakoarekin batera eserita sofa batean, biak daude irakurtzen.

ZPRIST edari bat du eskuan).

ZPRIST.- Nahi duzu? Ez? Zu bezalakoekin gustura egoten da. Hala ere ez zinateke kezkatu behar, freskagarri honek ez du gizentzen. "Light in de beri" da, freskagarri light baino lightagoa. Oso garestia da, baina ordaintzen duzunaren ehuneko hamarra Gobernu Kanpoko Erakunde bati ematen zaio. Badakizu zein? Mugarik Gabeko Demokrata Etsituak. Ezagutzen duzu? Oso garrantzitsua da bere zeregina gure gizartean. Zer egingo genuke Gobernu Kanpoko Erakunderik gabe? Mugarik Gabeko Demokrata Etsituak delako taldeak zera egiten du, guztiz eta erabat alienatuak, motibaziorik gabe sentitzen diren pertsonen psikologoko gastuak ordaintzen ditu. Oso eginkizun garrantzitsua da gure gizartean, aitatxo! Jendeak demokrazian konfiantza galduko balu, mendeak egingo genituzke atzera! Ai! Ezin dut imajinatu mundua gatazkaz beterik... pentsa! Gosea, gerrak, errepideak, Abiadura Handiko Trena bezalako suntsipen handiko armak... *(Isilunea)*. Badakizu? Zu gurekin bizitzera... diot hiltzera... tira, egotera etorri zarenetik neure bizitza aldatu dela sentitu dut, uste dut komunikazioa dagoela gure artean. Azkenean topatu dut entzuten dakien norbait... *(Isilunea)*. Zer ari zara irakurtzen? O! Zer dira argazki hauek? Nork eman dizkizu? XX. mendeko aldizkari porno bat! Seguru Gelnst izan dela. Uste dut uste trauma bat duela zurekin, noizbait konpondu beharko dituzue zuen artekoak. Ez du onartzen gure aita zarenik. *(Aldizkaria hartzen dio)*. Gauza hauek egun ere debekatuak daude, sexu goseak iraganean gatazka ugari sortzen baitzituen.

(ZPRIST une batez zalantzi, pentsakor gelditzen da aldizkariari so. HILDAKOari begiratu eta eskua zakilean jartzen dio, zer edo zer baieztatu nahian bezala. GELNST sartzen da tupustean).

GELNST.- Zertan ari zara?

ZPRIST.- Ni?! Ezertan... ezertan...

GELNST.- Begira nor topatu dudan kalean.

SNIFST.- Egun on, edo are egun on ere, jaun hori.

ZPRIST.- *(Gogaiturik)*. Zu, berriz ere...

SNIFST.- Berri pozgarria dakart zuentzat, edo agian ez, agian ez da pozgarria, agian etsigarria da, tristea, nork daki, nik ez behintzat, baina berri hau berria dela esango nuke, nolana ere.

ZPRIST.- O.

GELNST.- Zer da?

(Isilunea. SNIFSTek disimulu apur batekin so egin du ingurura).

SNIFST.- Zer da... zer?

GELNST.- Ekarri diguzun berria!

SINIFST.- O, bai, bai. Berri pozgarria dakart zuentzat, zalantzarik gabe, edo zalantza apur batekin, izan ere agian ez, agian ez da pozgarria, agian etsigarria da, tristea, nork daki, nik ez behintzat, baina berri hau berria dela esango nuke, nolana ere.

ZPRIST.- Eta...? Zein da berria...?

SNIFST.- Berria da, alajaina, hau da, zera, diot, berria da hemen zuen alboan sofa horretan eserita dagoen haragi eta hezur pila ez dela zuen aita.

ZPRIST.- Zer!!!

GELNST.- (*Pozik*). Ona! Banekien nik!

ZPRIST.- Ez da posible. Hori da berria?

SNIFST.- Zein?

ZPRIST.- Orain esan duzuna.

SNIFST.- Zer esan dut orain?

GELNST.- Arraioa, berria!

SNIFST.- Berria?

GELNST.- Bai motel, haragi eta hezur pila hau ez dela gure aita!

SNIFST.- O, bai, baina hori jada ez da berria, hau da, nik esango nuke, zalantza izpirik gabe, berria esan dizuedan unetik bertatik berria zuentzat zaharra dela, hortaz, une honetatik aurrera zaharra aipatzen dugunean lehengo berria esan nahiko dugu. Elkar ulertze aldera diot...

ZPRIST.- Ez da posible... (*Hildakoari besoetara botatzen zaio*) AITA!!!

SNIFST.- Sentitzen dut jauna. Akats burokratiko bat izan da.

ZPRIST.- Ezin dut sinetsi!

GELNST.- Egia onartu behar duzu Zprist, anaiatxo samurra. Nik banuen susmo hori.

ZPRIST.- Eta zuk nola dakizu ba, ez baduzu ezer gogoratzen!

GELNST.- Intuizio femeninoa.

ZPRIST.- Baina zu ez zara emakumea!

GELNST.- Badakit, baina asteartero, zortziak aldera, nire alde femeninoa azaleratzen zait.

ZPRIST.- Gaur asteazkena da!

GELNST.- Arraioa, arrazoi duzu, bai. Mmmm... agian bisexuala naiz... mmmm... egun handia da gaurkoa, aukerez beteriko mundu bat zabaltzen da nire aurrean.

SNIFST.- Ez dut ezertxo ere ulertzen. Hau da, diot, nik gaintetik pisu bat kendu behar nizuelakoan nengoen.

ZPRIST.- Pisua oraintxe jarri zait bihotzean! Nori kontatuko dizkiot orain nire penak?!

GELNST.- Ba orain arte bezala, niri, Zprist, anaiatxo samurra.

ZPRIST.- Ez da gauza bera! Zuk erantzun egiten didazu! Nahiago dut norbaitek entzutea ezer esan gabe, nire arazoen inguruan itsu izaten jarraitzeko!

GELNST.- Ez duzu zure arazoen egia jakin nahi?

ZPRIST.- Ez! Nahiago dut ezjakina eta zoriontsua izan! Zer gertatuko da orain gure aitarekin?

SNIFST.- Tira, nik esango nuke, zalantzarako tarterik utzita beti ere, aita hitza teknikoki ez dela oso aproposa. Erantzungo dizut hala ere. Gorpu hau aitazurtza da, ez dakigu nortzuk diren bere ondorengoak, hortaz arteari emango diogu. Artista entzutetsu batek XX. mendean eraikitako Guggenheim museoa hildakoekin estali nahi du behin betiko, artearen heriotza adieraziz.

ZPRIST.- Ez! Guggenheimerara ez!

GELNST.- Anaiatxo, anaiatxo, onartu egin behar duzu. Hildako hau ezezagun bat da. Lasai egon zaitez, ez dizkio inori kontatuko zure sekretuak.

ZPRIST.- Hilabeteak daramazkit aita bizkarrean eramaten, zure gustuko ekintza sinboliko iraultzailea egiteko, eta orain horren erraz desegingo zara beretaz?

GELNST.- Tira, anaiatxo, ez ezazu horrela ikusi... hilabeteak esatea ere...

SNIFST.- Hilabeteak...

GELNST.- Hilabeteak...

SNIFST.- Hilak ala beteak? Zerekin beteak? Hil-argiz beteak?

GELNST.- Aizu, nola jakin dezakegu gobernuak ez zaituela gure iraultza geldiarazteko bidali?

SNIFST.- Ezin duzue jakin.

GELNST.- Eta ez duzu ukatuko ere?

SNIFST.- Nik ez dakit egiarik esaten.

GELNST.- Hortaz gezurra da.

SNIFST.- Zer da gezurra?

GELNST.- Nik esan dudana ez baduzu gezurra denik esaten, horrek esan nahi du gezurra dela, zuk ez dakizulako egiarik esaten. Eta egia gezurra bada, orduan hobe zuri gezurrik ez esatea, egia esan.

SNIFST.- Arrazoi duzu.

GELNST.- A bai? (*Geldiunea*) Zertan dut arrazoi, harroputz arraro hori?

SNIFST.- Zuk esan duzuna ez badut gezurtatzen, horrek esan nahi du gezurra dela, nik ez dakidalako egia esaten. Eta egia gezurra bada, orduan hobe niri gezurrik ez esatea, egia esan.

GELNST.- Eta zer da egia?

SNIFST.- Egia? Eguneroko ogia.

GELNST.- Hori bai egia. Egia ogia balitz bezala jaten dugu egunero, irentsi eta begien aurretik kentzeko.

SNIFST.- Hori da bai, egia irensten dugu ez ikusteko.

GELNST.- Mundu demokratiko hau etsigarria da.

SNIFST.- Bai. Tori.

GELNST.- Zer da hau?

SNIFST.- Nire telefonoa. Mugarik Gabeko Demokrata Etsituak Gobernuz Kanpoko Erakundearen lehendakaria naiz.

GELNST.- Ez dut behar! Nik iraultza dut xede! Hildakoekin edo hildakorik gabe! Egiak okatuko ditugu!

ZPRIST.- Baina aitarik gabe ezingo dugu iraultza bultzatzeko ekintza sinbolikorik egin!

GELNST.- Hori ere egia da.

ZPRIST.- Anaiatxo, zergatik ez dugu adoptatzen?

GELNST.- Adoptatu? Adoptatu haurrak egiten dira, ez gurasoak.

SNIFST.- Nik ere haur bat adoptatu dut.

GELNST.- Hara! Benetan?

SNIFST.- Ez.

GELNST.- O.

SNIFST.- Bai.

ZPRIST.- Eta zer sentitzen da?

SNIFST.- Egiazko gezurra nahi duzue?

GELNST.- *(Aldizkari pornoa hartu eta irakurtzen hasita, asperturik).* Bai, noski, biziki interesatzen zait.

SNIFST.- Nik berez ez dut seme edo alaba bat adoptatu.

ZPRIST.- A, ez?

SNIFST.- Biloba bat adoptatu dut.

ZPRIST.- Benetan? Nola da hori?

SNIFST.- Beti nahi izan dut amona izan. Baina ez nuen laurogei urte bete arte itxaron nahi.

ZPRIST.- Gelnst! Adoptatu dezagun gorpu ezezagun gau! Azkenean aita bat izango dugu!

GELNST.- Hau da hau gure grazia! Iraultza modu berri bat asmatu duzulakoan nago anaiatxo!

ZPRIST.- Zer diozu baina?

GELNST.- Ezezagun bat hartzen badugu aitatzat, iragan bat asmatu beharko diogu, izen bat jarri, biografia bat idatzi. Agian gure iragana berridazteko kapazak izango gara orduan!

ZPRIST.- Egia! Iragan berri bat asmatzeko kapazak bagara, askeago izango gara agian!

GELNST.- Askeago!

ZPRIST.- Askeago!

SNIFST.- Askeago! (*Begira gelditzen zaizkio*). Ez duzue amona bat adoptatu nahi?

GELNST.- Agian bai.

ZPRIST.- Nork daki.

GELNST.- Ezezagunekin osatuko dugu gure familia!

ZPRIST.- Iragana asmatuko dugu!

GELNST.- Noiz?

ZPRIST.- Oraintxe bertan. Oraintxe bertan ari gara sortzen iragana.

GELNST.- Joan gaitezen kalera ospatzera! Jendeari erakutsiko diogu gure zorientasun antidemokratikoa!

SNIFST.- Klean dago bizitza!

ZPRIST.- Bizitzak ez du kale egiten!

(*Badoaz. Isiltasuna etxean. Argia jaisten hasten da, eta ustekabeen, hildakoak zera egiten du: ejum jjjmmnn, ellum llmmnnn... ILUNA*).